



GURE ORDEZKARIAK

ARABA: LEILA MARTÍN 945004919

BIZKAIA: MERTXE GUILLÉN 944016525

GIPUZKOA: BEGOÑA GARTZIA 943004361

Pasa den ostegunean, urriak 6, Lan Osasuneko Batzordea egin zen, aurreikusitako gai-zerrendari jarraituz.

- **Obra eta Instalazio Zerbitzuak hainbat gairen berri eman zigun:**
 - **Gasteizko Justizia Jauregiari dagokionez**, komunen egoera txarrean dauden azulejuen ordezkapena datorren urriaren 17an hasiko da. Eraikin bereko EKKSkoi leihoei dagokienez, egoera txarrean daudenak hotza sartzen baita, zonako arduradunari jakinarazi zaio, azter ditzan.
 - **Gasteizko Administrazioarekiko Auzien epaitegiaren obrei dagokienez**, kontratua esleituta dago eta urtea amaitu baino lehen gauzatuko da; horretarako, beste epaitegi bat sortzea hartu da kontuan.
 - **Gasteizko justizia-jauregian moketa** guztiz ordeztzeko behin eta berriz eskatu denez, beste behin ere erantzuna da aurtengo eta datorren urteko aurrekontuak ikusita, ordezkapen horrekin jarraitzea nahiko zaila izango dela. Horretan jarraituko dugu moketa bulego guztietatik desagertu arte.
 - **Amurrioko Justizia Jauregiari dagokionez**, jakinarazi digute sarbideen automatizazioarekin amaitu dela, eta Arabako EATrekiko koordinazioa baino ez dela geratzen, Gasteiztik informatika integratzeko.
 - **Aulkiak aldatzeko kontratua** urriaren 18an sinatuko da, eta Atotxa-Donostia eraikineko lanpostuen aulki funtzionalak aldatzea izango da. Egoera txarrean dauden aulkien ordezkapena EATri eskatu beharko litzaioke, eta ikusiko dute ea kontratu txikien bidez egin daitekeen (15:000 euro arte), jada baliabiderik ez dagoela aurreratuz, onartuta dagoenerako izan ezik.
 - **Irungo klimatizazioarako eta Atotxako argietarako kontratuak** azaroan egingo dira.
 - **Bilboko Emakumeen aurkako Indarkeriaren Epaitegiak eraberritzeko lanak** beranduenez abenduaren 1ean hasiko dira. 5. solairutik hasiko dira, bi

hilabeteko lehenengo fasean; gero, hilabeteko etenaldia izango da, langileak lekuz aldatzeko eta mugimendu desberdinak egiteko; eta hirugarren fasea hiru hilabetekoa izango da.

- **Prebentzioko ordezkarien proposamenak:**

- LABek prebentzio-zerbitzuari eskatzen dio hasitako **espedienteen zerrenda eta espediente horietako ekintza zuzentzaileen jarraipena** emateko, informazio hori gabe ezin baitugu ikusi neurriren bat gauzatzen ari den ala ez. Zerbitzuak aitortu du ez digutela bidali eta ahalik eta lasterren bidaliko dutela.

- **Jokabide Desegokien Protokoloaren aplikazioari buruz** sindikatuek dituzten jarrerai dagokienez, LABek premiazko bilera bat eskatu du Zerbitzuarekin eta prebentzioko gainerako ordezkariekin, gai honetan aurrera egiteko. Joan den irailaren 20an Osalanekin bildu ginen, sindikatu batek egindako kontsulta baten ondorioz, eta, egindako txostena helarazitakoan, data bat ezarriko da biltzeko eta une honetan dugun egoeratik ateratzeko. Ez da ahaztu behar protokoloa tresna bat dela gure lan-eremuan sor daitezkeen gatazkak konpontzeko, eta prebentzio-ordezkari guztien betebeharra da gatazka horiek konpontzeko ahal den guztia egitea.

- **Bilboko Buenos Aires eraikinean egindako arrisku psikosozialen ebaluazioari dagokionez**, lantaldea bildu baino ez da egin gabe geratzen, hautemandako arriskuak zuzentzeko neurri zuzentzaile zehatzak jasotzen dituen azken txostenari forma emateko. LABentzat ezinbestekoa da hori lehenbailehen egitea, eta ezin da prozesua gehiago atzeratu. Hartuko diren neurrien ondorioak gainerako lantokietara zabaltzea eskatuko dugu, arrisku batzuk lantoki guztientzat komunak baitira, hala nola, lanaren antolaketatik, lidergotik, talde-lanetik eta abarretatik eratorritakoak.

- **Lanpostuen arriskuen ebaluazioari buruz egin diren berrikuspenen txostenak** guri emateko eskatzen dugu, bai eta horietako bakoitzean antzemandako arriskuei buruzko neurri egokiak hartzeko ere. LABek azpimarratu du ebaluazio horien helburua detektatzen diren gabeziak zuzentzea dela. Gauza bera gertatzen da egiten ari diren **larrialdi-simulakroekin**; garrantzitsuena ez da simulakroak egitea, gaizki ateratzen dena zuzentzea baizik. Prebentzio-zerbitzuak jakinarazi digunez, zenbait

lantokitako larrialdi-taldeetako lanpostuak definitzen ari dira, Letradu koordinatzaileen laguntzarekin.

- **Lan-karga** oso handia duten ZULUPen egoera ikusita, Prebentzio Zerbitzuari eskatzen diogu lehentasuna eman diezaiotela ZULUPei arriskuen ebaluazioaren berrikuspena egiterakoan. Gehiegizko lan-karga prebentzioaren gaia da; izan ere, faktore horrek batzuetan bitarteko langileen uko egiteak eragiten ditu, beste kidego batean lan-poltsan aktibatzea, are gutxiago, lanpostuz aldatu ahal izateko.

- **ONDORIOAK**

Prebentzioa arrisku-egoerak detektatzean, horiei irtenbide bat emateko neurriak hartzean eta, ondoren, jarraipena egitean datza. LABek borrokan jarraituko du kolektibo osoaren segurtasuna eta osasuna bermatzeko, prebentzioa legea betetzeko jarduerak gauzatzean soilik gera ez dadin.

Zuen lanpostuan lan-segurtasunaren arloan antzematen duzuen edozein premia jakinaraz diezaguzuen animatzen zaituztegu, konpontzen saia gaitzen.

2022-10-07